**UDALBATZAK 2018KO MARTXOAREN 23AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren 23ko arratsaldeko 16:00 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 23 DE MARZO DE 2018**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 16:00 horas del día 23 de marzo del año dos mil dieciocho, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Ez direla etorriko adierazi dute Eñaut GRACIA IBARRAk (Orereta/Errenteriako EHBildu) eta María Teresa AZPILICUETA LLORENTEk (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Mª José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

----------

**1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 507 zk.tik 755 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. SARE-k aurkeztu eta Orereta/Errenteriako EHBilduk, Errenteria IrabaziZ-ek eta EAJ/PNV-k izenpetutako mozioa, Aitzol Gogorza eta Mikel Arrieta larriki gaixorik dauden presoen egoeraren ingurukoa.**

Carlos Gartziak SARE-n izenean ondoko mozioa irakurri du:

“Aitzol Gogorza eta Mikel Arrieta larriki gaixorik dauden presoen egoeraren inguruko mozioa. 2018ko martxoaren 23ko Errenteriako Udalbatzan onespenerako aurkeztua.

Orereta-Errenteriako SARE herritar sareak apirilaren

- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

No asisten, excusando su inasistencia, ni Eñaut GRACIA IBARRA (Orereta/Errenteriako EHBildu), ni María Teresa AZPILICUETA LLORENTE (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos).

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Mª José SANCHEZ PLAZA.

----------

**1. Dar cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 507 al 755 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**2. Moción presentada por SARE, suscrita por Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV, relativa a la situación de los presos gravemente enfermos Aitzol Gogorza y Mikel Arrieta**

Carlos Gartzia en representación de SARE da lectura a la siguiente moción:

“Moción relativa a la situación de los presos gravemente enfermos Aitzol Gogorza y Mikel Arrieta, presentada para su aprobación en el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria, el día 23 de Marzo del 2018

Con motivo de la celebración del día Mundial de la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

7an Osasunaren Munduko Eguna dela eta, hauxe adierazi nahi du:

Osasunerako eskubidea, oinarrizko eskubidea izateaz gain, eskubide unibertsala ere bada, eta pertsona guztiek, preso egon edo ez, izateko eskubidea dute. Askatasunaz gabetzeko zigor bat bete arren, ez dago inor osasunerako edota duintasunez hartua izateko eskubiderik ez duenik esaten duen legerik edo araurik.

Munduko Osasunaren Erakundearen arabera, bere sortze-agirian jasotzen duen legez, osasuna da norbanako baten erabateko ongizate fisiko, psikiko eta soziala, eta ez minaren edo gaixotasun baten gabezia edo falta soilik.

Aitzol Gogortzak nahasmendu obsesibo-konpultsiboa eragiten dion buruko gaitz bat du eta autolisia izateko arrisku handia ere badu. Azken urte hauetan, bere egoeraren ondorioz, behin baino gehiagotan Basurtoko erietxean ospitaleratua izan da. Egun Basauriko gartzelan dago.

2017Ko urtarrilean Mikel Arrietari Algeciraseko Campo Gibraltar ospitaleko sendagileek Espondilartropatia kroniko seronegatibo bat diagnostikatu zioten. Endekapenezko gaixotasun larria eta sendaezina. Egun Algeciraseko gartzelan da, herritik 1200 kilometrora, hain zuzen ere.

Honekin guztiarekin, adierazi nahi duguna da gure bi bizilagun hauen osasun egoera ez dela bateragarria gartzelan egotearekin. Are gehiago kontuan hartzen badugu, espetxeen legeak eritasun larrien aurrean hainbat aukera ematen dituela pertsona hauek tratamendu egoki bat jaso dezaten ingurune osasuntsu eta afektibo batean, hala nola, espetxe-

Salud el próximo 7 de Abril, la red ciudadana SARE de Errenteria-Orereta quiere expresar lo siguiente:

El derecho a la salud es un derecho fundamental, pero también es un derecho universal, que debe ser respetado para todas las personas, estén presas o estén en libertad. No existe ley, ni reglamento, ni norma alguna, que indique que cualquier persona, por el hecho de estar privada de libertad, debe ser, también, privada de su derecho a la salud y a un trato digno.

Según la OMS (Organización Mundial de la Salud), en una definición que recoge en su acta fundacional, la salud es “el estado de completo bienestar físico, psíquico y social de un individuo, y no solo la ausencia de dolor o enfermedad”.

Aitzol Gogorza padece un trastorno mental con desorden obsesivo compulsivo y con un alto riesgo de autolisis. En los últimos años, a consecuencia de su estado, ha tenido que ser ingresado en numerosas ocasiones en el hospital de Basurto. Hoy en día se encuentra en la prisión de Basauri.

Mikel Arrieta padece Espondilartropatia crónica seronegativa diagnosticada en Enero de 2017 por los médicos del hospital Campo Gibraltar de Algeciras. Una enfermedad grave, incurable y degenerativa. A día de hoy se encuentra en la prisión de Algeciras, a 1200 km de su entorno afectivo.

Entendemos que la situación por las que atraviesan nuestros dos vecinos es totalmente incompatible con su estancia en prisión, y más aún teniendo en cuenta que la propia ley penitenciaria, en casos de enfermedades graves, contempla alternativas como la prisión atenuada o la suspensión de la condena para que estas personas puedan recibir un



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

zigorraren etetea edo arintzea.

tratamiento adecuado rodeadas de su entorno afectivo.

Azken aldian geure herrian elkarbizitza eta adiskidetzerako urrats ugari eman dira, SAREk txalotu eta babesten dituen urratsak, eta bide honetan bakea bidezkoa eta iraunkorra izan dadin giza-eskubideen urraketekin bukatu behar dugu.

En nuestro pueblo se han dado numerosos pasos en el camino de la reconciliación y la convivencia, pasos que SARE aplaude y respalda totalmente; y en ese camino debemos de terminar con las vulneraciones de derechos humanos para impulsar entre todos y todas un escenario de paz justa y duradera.

Ondorioz, gure bizilagun diren Aitzol Gogorza eta Mikel Arrietaren osasun egoeraren jarraipena eginaz eta 2017ko ekainaren 29an Gasteizko Parlamentuan larriki gaixorik dauden presoen egoeraren inguruan hartutako neurriak oinarri izanda, ondorengoa proposatzen diogu Errenteriako Udalbatzari:

Por todo ello, proponemos al Ayuntamiento de Errenteria en relación a la situación de los presos gravemente enfermos Aitzol Gogorza y Mikel Arrieta, haciendo un seguimiento del estado de salud de estas dos personas y, de acuerdo con lo aprobado en el Parlamento Vasco el 29 de Junio de 2017 sobre medidas aplicables para personas presas que padecen enfermedades graves e incurables lo siguiente:

**PROPOSAMENA**

**LEHENENGOA:** Udal batzarrak eskumena duten agintariei eskatzen die aintzat har ditzatela indarrean dagoen Estatuko legedia eta nazioarteko estandar zorrotzenak, halako moldez non gaixotasun sendaezin oso larriak dituzten presoak hirugarren graduan sailkatu eta espetxetik atera ahal izango dituzten arrazoi humanitarioengatik eta duintasun pertsonalarengatik.

**BIGARRENA:** Udal batzarrak Gobernu zentralari eta, bereziki, Espetxe Erakundeei eskatzen die zaindu dezatela errespetatzen dela espetxeratu guztiek bizitzeko, osotasunerako eta osasunerako duten eskubidea, uste baitu botere publikoek sentsibilitate berezia erakutsi behar dutela espetxe-politika zuzendu behar duten printzipioak eta, zehazki, Espetxe Erregelamenduaren 104.4 artikulua

**PROPUESTA**

**PRIMERO:** Que el Ayuntamiento solicite a las autoridades competentes que tengan en cuenta la legislación vigente estatal y los estándares internacionales más exigentes, de tal modo que los penados enfermos muy graves con padecimientos incurables puedan ser clasificados en tercer grado y ser excarcelados por razones humanitarias y de dignidad personal.

**SEGUNDO:** Que el Ayuntamiento inste al Gobierno central, y a Instituciones Penitenciarias en particular, a velar por el respeto al derecho a la vida, integridad y salud de toda la población reclusa, considerando que los poderes públicos deben manifestar una especial sensibilidad en la aplicación de los principios que deben regir la política penitenciaria y, en concreto, del artículo 104.4 del Reglamento



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

aplikatzean.

**HIRUGARRENA:** Hori dela eta, Udal batzarrak eskatzen du indargabetu dezatela Espetxe Erakundeen idazkaritza Nagusiaren 3/2017 instrukzioa eta zuzendu dezatela Barne ministroak adierazitako irizpidea, zeinaren arabera gaixo dagoen preso bati bi hilabeteko epean hiltzeko berehalako arriskua duenean bakarrik emango zaion baldintzapeko askatasuna, irizpide horrek urratzen bailituzte bai legalitatea eta humanitate-oinarrizko printzipioak bai halako erabakia ustez hartu beharko lukeen personal medikoaren printzipio deontologikoak.

**LAUGARRENA:** Udal batzarrak Gobernu zentralari beste behin ere eskatzen dio euskal erakundeekin partekatu eta adostu dezala espetxe politikaren orientazioa."

Hauek mintzatu dira:

* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz adierazi du Aitzolek eta Mikelek bizi duten egoera larriaren aurrean eta giza eskubideen defentsan hainbat ekimenetan parte hartu dutela udal-talde bezala nahiz alderdi bezala. Mozio honen aurrean, beraz, beren jarrerak bide horri eutsiko dio eta aldeko bozka emango diote. Zoriontzekoa da, gainera, oraingo honetan talde guztien adostasuna lortu ahal izana. Zorionak eman dizkiete Sareko kideei eta baita talde politikoei ere esfortzuagatik. Errenterian aspaldian dabiltza herriak merezi duen elkarbizitza eraikitzeko ahaleginetan. Urte luzetan bizitakoaren aurrean ikuspegi eta bizipen desberdinak daude, noski, baina etorkizunerako guztiek dute helburu berdina: bakean eta elkarbizitzan oinarritutako gizarte bat. Azkenaldian bolo-bolo dabiltza gizartean gorrotoa eta mendeku nahia indartzen dituzten iritzi eta ekimenak.

Penitenciario.

**TERCERO:** Que el Ayuntamiento solicite, en este sentido, la derogación de la Instrucción 3/2017 de la Secretaría General de Instituciones Penitenciarias y la rectificación del criterio expresado por el ministro del Interior, según el cual solo se deberá conceder la libertad condicional de un preso enfermo ante un riesgo inminente de fallecimiento en el plazo de dos meses, porque vulneran los más básicos principios de legalidad y humanidad, así como los principios deontológicos del personal médico que supuestamente debería adoptar este tipo de decisión.

**CUARTO:** Que el Ayuntamiento inste al Gobierno central a compartir y consensuar con las instituciones vascas la orientación de la política penitenciaria.“

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV) manifestando que ante la grave situación que viven Aitzol y Mikel y por la defensa de los derechos humanos han participado en diversas iniciativas, tanto como grupo político como partido. Así, ante esta moción mantendrán la misma posición, y votarán a favor. Además, hay que felicitarse porque en esta ocasión todos los grupos hayan llegado a un acuerdo. Felicita a Sare y a los grupos políticos por el esfuerzo realizado. En Errenteria llevan tiempo intentando construir la convivencia que se merece el municipio. Tenemos diferentes perspectivas en relación a lo vivido durante años, está claro, pero tenemos el mismo objetivo de cara al futuro: una sociedad basada en la paz y en la convivencia. Últimamente abundan en la sociedad opiniones e iniciativas que fomentan el odio y el ansia de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Zenbait egoeratan naturalak diren giza sentimendu horien erabilera interesatua arduragabekeria dela uste dute. Aitzol eta Mikelen zigorra bidegabe eta legezkoak diren neurriak erabiltzeari muzin eginda ez arintzea ere arduragabekeria dela deritzote. Giza eskubideen errespetua ezin da baldintzatu. Aitzolek eta Mikelek legeak ezarritako zigorra beteta dute, eta ez da zilegi zigor hori areagotzea, gaixorik daude eta beren egoeran dagoen edozein pertsonak dituen eskubide berak bermatu behar zaizkie. Espetxe-erregelamenduaren 104.4 artikulua aplikatu eta gorrotoak bultzatutako politikak alde batera utzi behar ditu gobernu zentralak, giza baloreetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko. Halaber, beren elkartasuna adierazi nahi diete Mikeli, Aitzoli eta horien senitartekoei.

venganza en la sociedad. El uso interesado de sentimientos humanos que en ciertas situaciones son naturales les parece una irresponsabilidad. También opinan que es una irresponsabilidad hacer caso omiso a la posibilidad de utilizar medidas legales para aliviar la pena de Aitzol y Mikel. Ya han cumplido la pena establecida por lla ey, y no es lícito aumentar esa pena, están enfermos y se les deben garantizar los mismos derechos que a cualquier otra persona que se encuentre en su misma situación. El gobierno central debe aplicar el artículo 104.4 del Reglamento Penitenciario y dejar de lado las políticas guiadas por el odio, para construir una sociedad basada en valores humanos. Asimismo, quieren mostrar su solidaridad a Mikel, Aitzol y sus familiares.

* Basurto andreak (Errenteria IrabaziZ) euskaraz adierazi du Txarlik esan duen bezala, gure herrian eta gure erkidegoan ere urratsak ematen ari direla aurrera begira. Esan behar da Euskal Herrian kontsentsu sozial zabala dagoela espetxe-politikaren inguruan, salbuespen legal hauekin amaitzeko eta giza eskubideen markora egokitu dadila eskatzen duena, Alderdi Popularraren gobernuak behin eta berriz urratzen badu ere. Larriki gaixorik dauden presoen egoera adibide bat baino ez da. Errenteria IrabaziZek Rajoyren gobernuak aplikatzen duen espetxe-politikaren mendeku-izaera salatzen du eta salbuespen legal honekin amaitzeko ere eskatzen dio. Ez dezala espetxe-politika eta euskal presoen egoera etekin politikoa ateratzeko erabili, eta berma dezala behingoz giza eskubideei egokitutako tratu humanitarioa jasotzen dutela, osasun-egoera kontutan hartuta, bai bi kasu hauetan, bai gainontzeko euskal presio guztien kasuan, Euskal Herrira hurbilduta. Jada 2017ko ekainean Legebiltzarrean hemen ordezkatuta gauden alderdien aldeko bozkarekin larriki gaixorik dauden presoen

* Interviene en euskera la Sra. Basurto (Errenteria IrabaziZ) manifestando que tal y como ha relatado Txarli, en nuestro municipio y en la comunidad se están dando pasos hacia delante. Debe decir que en Euskal Herria existe un amplio consenso social en relación a la política penitenciaria, que demanda que se termine con estas excepciones legales y se adecue al marco de los derechos humanos, aunque el gobierno del Partido Popular los vulnere sistemáticamente. La situación de estos presos gravemente enfermos no es más que un ejemplo. Errenteria IrabaziZ denuncia el carácter revanchista de la política penitenciaria aplicada por el gobierno de Rajoy e insta a que se termine con esta excepción legal. Que no utilice la política penintenciaria y la situación de las personas presas vascas para sacar rédito político y que garantice de una vez que reciben un trato humanitario adecuado a los derechos humanos, teniendo en cuenta su estado de salud, tanto en estos dos casos como en el caso de todas las personas vascas presas, y que las acerque a Euskal Herria. Ya en junio de 2017 en el Parlamento

askatasuna eskatzen duen legez besteko proposamena onartu zen espetxe-erregelamenduko 104.4 artikuluak adierazten duen bezala. Hitzez hitz aipatu du espetxe-erregelamenduaren 104.4 dioena (gaztelaniaz): “los penados enfermos muy graves, con padecimientos incurables según informe médico, con independencia de las variables intervinientes en el proceso de clasificación, podrán ser clasificados en tercer grado por razones humanitarias y de dignidad personal atendiendo a la dificultad para delinquir y a su escasa peligrosidad”. Hori da Aitzol Gogorzaren eta Mikel Arrietaren kasua, gaur SAREk hona ekarri digun bi errenteriarren kasua, eta Errenteria IrabaziZek ere mozioaren alde bozkatuko du. Amaitzeko, SAREri eskerrak eman dizkio.

Vasco se aprobó una proposición no de ley que demandaba en base al Reglamento Penitenciario la puesta en libertad de las personas presas gravemente enfermas con el voto a favor de los partidos aquí representados. Cita textualmente lo que el artículo 104.4 del Reglamento Penitenciario dice: “los penados enfermos muy graves, con padecimientos incurables según informe médico, con independencia de las variables intervinientes en el proceso de clasificación, podrán ser clasificados en tercer grado por razones humanitarias y de dignidad personal atendiendo a la dificultad para delinquir y a su escasa peligrosidad. Este es el caso de Aitzol Gogorza y de Mikel Arrieta que les trae hoy aquí SARE, ambos vecinos de Errenteria y sin ninguna duda Errenteria IrabaziZ también votará a favor de la moción presentada. Finaliza dando las gracias a SARE.

* Rodríguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) testu hau irakurri du gaztelaniaz: Gaur hemen dugu SARE plataformaren mozio bat, gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten herriko bi presori buruzkoak. Aitzolena berretsia dago, Arartekoak berak egin du, eta Mikelena, berresteko prozesuan dago. Mozioa jorratu dugu talde guztiek eta gai horietan ados gaude, presoak gaixotasun larria edo sendaezina duela berresten denean, berretsiko da Eusko Legebiltzarrean 2017ko ekainaren 29an gehiengoz onartutako ebazpena, azalpen-zatian adierazten den moduan, eta ebazpen horren puntuak jasota daude mozioaren ebazpen-zatian. Adostasunera iristeko izandako kontaktuen inguruan adierazi behar dut giro atseginean egin direla, eta horrek aukera eman duela elkarrizketa azkarra eta eraginkorra izateko, borondatea zelako adostasunera iristea. Alderdi Sozialista diskrezioz aritzen da gai hauetan, kontu delikatuak direlako, polemikarik gabe eta legeek eta erregelamenduak

* Interviene el Sr. Rodríguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) dando lectura al siguiente texto: hoy tenemos una moción de la plataforma SARE sobre dos vecinos presos con enfermedades graves o incurables. La de Aitzol ya confirmada, incluso por el Ararteko, y la de Mikel en proceso de confirmación. La moción ha sido tratada por todos los grupos y para estas cuestiones existe el acuerdo, de que una vez confirmado que el preso se halla en situación médica de enfermedad grave o incurable, ratificarnos en la resolución aprobada por mayoría en el Parlamento Vasco el 29 de junio de 2017, como así se especifica en la parte expositiva y los puntos de dicha resolución están plasmados en su totalidad en la parte resolutiva de la moción. De los contactos mantenidos para llegar a un acuerdo satisfactorio, puedo manifestar que los mismos se han desarrollado en un clima cordial, lo que ha permitido una interlocución rápida y efectiva ya que la voluntad era la búsqueda de consenso. El partido socialista

ezarritako mugen barruan, erabaki judizialak ere errespetatuta. Gaur beste pauso bat emango dugu egin beharreko ibilbide luzean, eta espero dugu guztiok arduraz eta errespetuz jokatuko dugula prozesu hauetan eta ez dugula huts egingo zuzenean edo zeharka biktimen zaurgarritasunean eragingo duten ekitaldiak eginda, horrek eramango baikintuzke lortzen ditugun adostasunak zailtzera. Giza eskubideak eskatzea aurrez kontuan izan ez dituenarentzat, bere egintzekin etengabe eskubide horiexek urratu dituenarentzat, herritarren zati batentzat zaila da ulertzea, haiek baitira, ETAkoak eta horiek babestu dituztenak, askatasunaz gabetzea eragin dutenak; baina zerbaitek definitzen bagaitu demokratak da legea betetzeak eta giza eskubideak errespetatzeak. Talde sozialistarentzat, legea betetzea da Estatu demokratikoa gehiago eta hobe defendatzeko tresna. Garrantzitsua da azpimarratzea errealitate berriek orain ere, garai berrian, politika berrietara behartzen gaituztela, eta horiek gauzatzera behartuak gaudela. Baina politika horiek ez ditugu orain asmatuko, aurreikusita daude eta indarreko legezkotasunaren araberakoak dira. Gaur, inoiz baino gehiago, zuzenbide-estatuaren sendotasuna frogatzearen aldekoak gara, estatu hori bermatzen txukunak eta arduratsuak izanda eta estatu horrek babesten dituen oinarrizko eskubideak errespetatuta, izan ere, eskubide horiexek aitortzen zaizkie arrazoi humanitarioengatik gaixotasun sendaezinak dituzten presoei. Gure taldeak aurkeztutako mozioaren alde bozkatuko du.

viene tratando con discreción estos temas, especialmente por su delicadeza, evitando la polémica y siempre dentro de los márgenes que existen por leyes y reglamentos, respetando también los pronunciamientos judiciales al respecto. Hoy damos un paso más en este largo camino que debemos recorrer, esperando que todos seamos responsables y respetuosos con estos procesos y no fallemos cayendo en la realización de actos que afecten directa o indirectamente a la vulnerabilidad de las víctimas, ya que ello nos llevaría a dificultar los consensos que vamos consiguiendo. Solicitar derechos humanos para aquellos que no los han tenido en consideración cuando con sus actos los han vulnerado constantemente, es difícil de comprender para una parte de la población ya que solo ellos, ETA y quienes les apoyaban son los responsables de su situación de privación de libertad, pero si algo nos define a los demócratas es el cumplimiento de la ley y el respeto a los derechos humanos. Para el grupo socialista, el cumplimiento de la ley es el mayor y mejor ejercicio de defensa de un Estado democrático. Es importante destacar que las nuevas realidades también ahora, en el nuevo tiempo, obligan a nuevas políticas, y estamos obligados a realizarlas. Políticas que por otro lado no nos las vamos a inventar, están previstas y son conformes a la legalidad vigente. Hoy más que nunca somos partidarios de demostrar la fortaleza del Estado de derecho, siendo impecables y escrupulosos en su garantía y en el respeto de los derechos fundamentales que ese Estado de derecho protege y que también se reconocen por razones humanitarias a las personas presas con enfermedades incurables. Nuestro grupo votara a favor de la moción presentada.

* López de Etxezarreta andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du aldeko bozka emango

* Interviene en euskera la Sra. López de Echezarreta (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que

diotela gaur Sarek aurkeztu duen mozioari. Mozioak espetxe-politika zigortzaile eta mendekuzale batez hitz egiten du, eta horri aurre egiteko eskaera zehatzak jartzen ditu mahai gainean. Udalbatza honetan luze tokatu izan zaie bereziki Aitzoli buruz hitz egitea, nahiz eta Mikel Arrietari buruz ere hitz egin duten, baina gutxienez 2012tik ari dira Aitzoli buruz hitz egiten. Lehen ere aipatu da, baina berriz aipatuko du bakoitzak zer gaixotasun duen, zinez larriak direlako eta jabetu behar dugulako horrek duen garrantziaz eta larritasunaz. Nahasmendu obsesibo konpultsiboa eragiten dion buruko gaitz bat, denok dakigun moduan bere buruarekiko arrisku latzak ekartzen dizkionak, Aitzol Gogorzaren kasuan. Eta Mikel Arrietaren kasuan, espondilartropatia kroniko seronegatiboa, sendatzen ez dena eta etengabe okerrera doana. Mikelen kasuan, gainera, etxetik oso urrun dago, dispertsioa aplikatzen zaio. Nahiz eta esan den bi kasu hauen larritasuna norainokoa den, hau salatu egin behar dute, argi gelditzen da ezin direla egoera horretan dauden pertsonak espetxean egon. Orain dela gutxi, martxoaren 6an, hemendik urruti zegoen preso bat hil zen, Xabier Rey, eta zalantzarik gabe ez zen kausa naturalengatik hil, espetxe-politika konkretu batek erail zuen, eta gogorra da, baina ezin da jakin horrelako zerbait gerta daitekeen eta garaiz irits gaitezkeen etxean egon daitezen, eta beren gaixotasuna ahalik eta duintasun handienarekin etxean pasa dezaten Aitzolek eta Mikelek. Horregatik eskatzen da —gainerako taldeek ere esan dute— 104.4 artikulua aplika dakiekeela, osasunerako duten eskubide hori bermatuaz. Eta aipatu nahi du hau babestearekin batera herri honetan normalizazio politikaren bidean badakigula zein garrantzitsua den adostasuna bilatzea eta gaurkoan ere mozio honen inguruan adostasun politikoa izatea izango da bide horren ondorio neurri batean, eta pozgarria iruditzen zaio. Sareri eskerrak eman nahi dizkio; jende asko

votarán a favor de la moción presentada por Sare. La moción habla de una política penitenciaria con ánimo de castigo y venganza, y pone sobre la mesa peticiones concretas para hacer frente a dicha situación. En este pleno les ha tocado hablar largo y tendido sobre todo de Aitzol, aunque también han hablado de Mikel Arrieta, pero por lo menos desde 2012 están hablando de Aitzol. Antes se ha mencionado, pero quiere repetir la enfermedad de cada uno, porque son realmente graves y tenemos que darnos cuenta de la importancia y de la gravedad. En el caso de Aitzol Gogorza, una enfermedad mental que le genera un trastorno obsesivo-compulsivo que como sabemos le acarrea graves peligros hacia sí mismo. Y en el caso de Mikel Arrieta, espondilartropia crónica seropositiva, incurable y que empeora constantemente. Además, en el caso de Mikel, está muy lejos de casa, porque se le aplica la política de dispersión. Aunque ya se ha expresado la gravedad de ambos casos, deben denunciar esta situación, está claro que no se pueden tener en prisión personas que se encuentran en este estado. Hace poco, el 6 de marzo, murió un preso que se encontraba lejos, Xabier Rey, y sin lugar a dudas no murió por causas naturales, fue asesinado por una política penitenciaria concreta, y es duro, pero no sabemos si de alguna otra manera puede suceder algo parecido y si podemos llegar a tiempo para que estén en casa y pasen su enfermedad en casa con la mayor dignidad posible Aitzol y Mikel. Por eso se solicita —el resto de grupos así lo ha manifestado también— que se les aplique el artículo 104.4, para garantizarles su derecho a la salud. Y al tiempo que apoya la moción, quiere mencionar que saben cuán importante es buscar el consenso en el camino hacia la normalización política en nuestro pueblo y hoy también el acuerdo político en relación a la presente moción será consecuencia de alguna manera de ese camino

etorri da eta ez da ohikoa Udalbatzan hainbeste jende egotea, eta eskertu die bertaratu izana. Esan du ahal duten heinean gaixo horiengandik eta familiengandik gertu eta laguntzeko prest daudela eta haiek laguntzeko beste modu batzuk ikusten badituzte, bide horretan lagun izango dituztela.

recorrido, y se alegra por ello. Quiere dar las gracias a Sare; ha venido mucha gente y no es habitual ver en el pleno tanta gente, y quiere agradecerles el que hayan acudido. Quiere manifestar que en la medida de lo posible estarán al lado de estas personas enfermas y de sus familiares; que están dispuestos a ayudar, y en caso de que ellos vean alguna otra manera de hacerlo, los acompañarán en el camino.

Amaitu dira mintzaldiak.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 19 botorekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV),

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 19 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteria IrabaziZ, EAJ/PNV)

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**Onartzea** SAREk aurkeztu eta Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ eta EAJ/PNVk sinatutako mozioa, Aitzol Gogorza eta Mikel Arrieta larriki gaixorik dauden presoen egoerari buruzkoa (erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

**Aprobar** la moción presentada por SARE, suscrita por Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV, relativa a la situación de los presos gravemente enfermos Aitzol Gogorza y Mikel Arrieta, que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Jarraian.

Seguidamente.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du eskerrak eman nahi dizkiela talde guztiei. Bere kideak esan duen moduan, Mikelen kasuan bai, baina Aitzolen kasuan ez da lehen aldia gai hau jorratzen dela, eta beste aldi horietan erabakia ez da aho batez atera. Gaur aho batez bozkatu dute alde, eta esan behar du hori berri pozgarria dela; bera asko pozten da, eta horregatik zoriontzen ditu taldeak eta aho batekotasun hori eragin duen testua idatzi dutenak. Bestalde, esan du Mikel eta Aitzol bisitatzeko asmoa duela, zuzenean izateko beren osasun-egoeraren

* El Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifiesta en euskara que quiere mostrar su agradecimiento a todos los Grupos. Como ha dicho su compañera, en el caso de Mikel sí, pero en el caso de Aitzol no es la primera vez que se trata este asunto y en esas ocasiones no ha salido el acuerdo por unanimidad. Hoy se ha votado por unanimidad y tiene que decir que esto es una buena noticia, personalmente se alegra mucho y por ello de nuevo felicita a los Grupos y a quienes han redactado ese texto que ha suscitado la unanimidad. Por otro lado decir que tiene intención de visitar tanto



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

berri. Badaki bien senitartekoak hemen daudela, eta zorionak eman nahi dizkie bozketan aho batasuna lortu izanagatik, eta animoak eman nahi dizkie aurretik duten biderako.

Amaitu da mintzaldia.

**3. DUINTASUNA ELKARTEAK aurkeztu eta Orereta/Errenteriako EHBilduk, Errenteria IrabaziZ-ek eta EAJ/PNV-k izenpetutako mozioa, pentsioei buruzkoa.**

DUINTASUNA ELKARTEAk pentsioen inguruan aurkeztutako mozio hau irakurri da:

**MOZIOA:**

Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen "DUINTASUNA" ELKARTEAK ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Errenteriako Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,...

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan,

a Mikel como a Aitzol para tener conocimiento directo de su estado de salud. Sabe que están presentes familiares de los dos y quiere darles la enhorabuena por la unanimidad en la votación y desearles mucho animo en el desarrollo en adelante de esa via.

Finalizada la intervención.

**3. Moción presentada por DUINTASUNA ELKARTEA, suscrita por Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteria IrabaziZ y EAJ/PNV, relativa a las pensiones.**

Se da lectura a la siguiente moción presentada por DUINTASUNA ELKARTEA relativa a las pensiones:

**MOCION:**

Desde la ASOCIACIÓN "DUINTASUNA" de Jubiladas y Pensionistas de Gipuzkoa SOLICITAMOS sea tratada esta MOCION en el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria y emplazamos a los Grupos municipales a aprobarla.

Las personas pensionistas llevamos años perdiendo poder adquisitivo en nuestras pensiones. Las sucesivas reformas de pensiones realizadas por los gobiernos del Estado, tanto del PP como del PSOE, nos han perjudicado seriamente. Somos nosotras y nosotros, las personas pensionistas, quienes venimos sufriendo recortes, nos cuesta llegar a fin de mes y no podemos en ocasiones ni encender la calefacción mientras para la banca, las eléctricas, los empresarios etc., si hay dinero.

La mayoría de pensionistas cobramos por debajo del umbral de pobreza y tras tantos años de trabajo y cotización, se nos hace cada vez más difícil vivir



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a , pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

dignamente los últimos años de nuestras vidas. Todo eso no parece importarles a los políticos pues no toman medidas para paliar esa situación por la que atravesamos casi el 25% de la población, las personas pensionistas.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitezela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla.

No es la primera vez que reclamamos se nos tenga en cuenta, se garantice unas pensiones mínimas que nos permitan vivir con dignidad. No podemos dejar pasar por alto que la mayoría de las personas que tienen pensiones bajas son mujeres que sufren un doble castigo inadmisible.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

Por todo ello y entendiendo que es cuestión de VOLUNTAD POLITICA pues, como hemos manifestado antes para otras cuestiones sí hay dinero, SOLICITAMOS AL AYUNTAMIENTO DE Errenteria:

1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.

1- Que se rechace la míser subida de 0,25% de las pensiones y se reclame el mantenimiento del poder adquisitivo de las mismas.

2.- 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitezen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hilero eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.

2. Que se solicite el establecimiento de una pensión mínima de 1.080 € para salir del umbral de la pobreza, según corresponde a la Comunidad Autónoma Vasca y establece la Carta Social Europea y mientras eso no sea posible se reclame al Gobierno de Gasteiz que establezca el complemento necesario para que todas las personas pensionistas lleguen mensualmente a esa cantidad.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantza Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.

3. Que se establezca un Sistema de Protección y Seguridad Social para la Comunidad Autónoma Vasca que garantice las pensiones públicas y la atención necesaria que necesitan cada vez más las personas mayores.

4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko

4. Que se rechace la aplicación del Factor de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.

Sostenibilidad que debería aplicarse el próximo año 2019 y va a suponer un nuevo e importante recorte de las pensiones.

5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak."

5. Que se remita al Gobierno del Estado y al Gobierno de Gasteiz los acuerdos adoptados por este Ayuntamiento."

Jarraian, "PENTSIOEN SISTEMA PUBLIKOAREN DEFENTSAN", Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta EAJ/PNVk sinatutako mozio alternatiboa irakurri da,

A continuación se da lectura a la siguiente moción alternativa suscrita por Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y EAJ/PNV, "POR UN SISTEMA DE PENSIONES GARANTIZADO, SOLIDARIO Y QUE RECUPERE EL CONSENSO SOCIAL Y POLÍTICO":

Azken urte hauetan, pentsio sistema publikoaren orainak eta, batez ere, etorkizunak eztabaida sortu dute hiritarren eta politikoen artean; izan ere, pentsio sistema publikoak kezka eta interes handia sortzen ditu hiritarren artean. Egoera hau areagotu da azken urteetan, Mariano Rajoy buru den Estatuko Gobernuak eginiko aldaketak direla-eta, aldaketa horiek pentsiodunen eskuratze-ahalmena murriztu ez ezik, ahalik eta akordio gradurik handiena eskatzen duen kontsentsua puskatu egin baitute.

El presente, y muy especialmente el futuro, del sistema público de pensiones, viene siendo objeto en los últimos años de un amplio debate político y ciudadano, reflejo del interés y de la preocupación que esta cuestión suscita en la ciudadanía. Este escenario se ha visto agudizado en los últimos años, a partir de los cambios introducidos por el Gobierno central liderado por Mariano Rajoy, que han provocado una significativa pérdida de poder adquisitivo para los pensionistas y han roto consensos básicos en una materia que, por su especial significación y alcance social, requiere del grado de acuerdo más amplio posible.

Azkenaldian, pentsiodunen eta PPren gobernuak azken urteetan garatutako politikaren kontra dauden indar politikoen aldarrikapenek bultzatuta, pentsio sistema publikoaren inguruko eztabaida areagotu egin da. Horren azken adibidea Eusko legebiltzarraren azken adierazpena dugu. Ildo horretan, gure ustez guztiz presazkoa da pentsio sistema publikoa sekulan eten behar izan ez zen adostasun markora bideratzea eta, hartara, azken urteotan pentsio sistema publikoa kaltetu duten neurriak bertan behera uztea eta sistema

En los últimos tiempos, el debate suscitado por esta cuestión se ha visto especialmente agudizado, provocado la reivindicación de colectivos de pensionistas y de las fuerzas políticas opuestas a la política desarrollada en los últimos años por el gobierno del PP. El último ejemplo, dentro de una larga lista, es el reciente pronunciamiento del Parlamento vasco. En sintonía con esta visión, entendemos que es urgente devolver el sistema de pensiones al marco de acuerdo que nunca debió abandonar y revertir aquellas medidas introducidas



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

lehengoratzea.

en lkos últimos años que han provocado su deterioro y un extenso rechazo social y polítrico.

Guzti horregatik, honakoa izenpetzen duten udal taldeek ondorengo MOZIOA aurkezten dute:

Por todo ello, los grupos municipales firmantes presentan la siguiente **MOCION:**

